


inguruko eztabaida bizian, euskal alfabetoaren hitz polemikoaren defentsan. EAJk egin zion eraso «izugarria» izan zen. Etxera deiak amenazuka, irainak, bere abizenaren letrak hatxez tartekaturik agertzen zituzten anonimoak, denetarik jasan zuen batzuegandik. «Hatearengatik izan ziren istiluak barregarriak dira orain baina orduan asko sufritu genuen», gaineratu du pentsakor garai mingots haiez gomutaturik.

Baina berak ez zuen amorerik eman eta batasunaren aldeko lanean segitu zuen bere erara. 'Alderdi' EAJren aldizkari ofizial eta klandestinoaren zuzendaria izan zen eta bertan hatxedun artikulua argitaratzen hasi zen, 'kanpotik' heldu... baina berak idatzitako gutunen bidez.

«Jende berria behar zen aldizkarian idazteko eta nik Ajuriagerrari esaten nion: 'nik ez diot esango gazte jendeari hatxerik ez idazteko'». Bilbotarra, bi urte gerago erbesteko Eusko Jaurlaritzako kontseilari hautatuko zuena, isilik geratzen zen «itxaron, itxaron» esanez, halako batean «arrazoi duzu, gaur planteatuko dugu bileran» esan zion arte. Eta ondorioz aukera izan zen aldizkarian 'kanpotik' zetozen hatxedun gutun horiek besteekin batera azaltzeko.

Ondoko urteotan martxa geldiezinan ibili zen Martin Ugalde. 1973ko egun batean Donibane Lohizunera deportatu zuen polizia espainolak — 'ya te dijimos que no te metieras en política' argudiatu zioten— eta urte horretan bertan euskaltzain izendatu zuten.



Ugaldek ez du uler-tzen euskaldun askoren utzikeria, «euskaldunak direnak eta hitz egiten ez dutenak, irakurtzen ez dakitenak...».

Hegoaldera 1976. urtean bueltatu zen berriro eta hurrengo urtean Euskaltzaindiaren 'El libro blanco del euskera' izeneko liburua zuzendu zuen. 1978an Deia egunkariko euskarazko erredaktoreburu kargua hartu zuen eta

1983an Eusko Jaurlaritzako Euskara Arazoetarako Zuzendaritza.

EAJren zatiketaren ondoren Lakuako postu horretan segitzeko eskatu zion Karlos Garaikoetxeak baina Jaurlaritza uztea erabaki zuen, «ezin nuen bertan geratu, barrenak ez zidan uzten», eta 38 urteko militantzia utziz EAN sartu zen.

Azken urteotan erretiratu samar ibili da politikatik, baina euskalgintza eta literaturarekiko loturei lehen bezain irmo eutsi die: EGUNKARIAREN Administrazio Kontseiluko lehendakaria dugu batetik, eta bestetik 'Mantal urdina' eta 'Bihotza golkoan' ipuin liburua eta 'Itzuleraren baten historia' nobela argitaratu ditu, besteak beste.

Martin «pozik» agertu da bide luze honetan egindako lanarekin, «egin behar zena egin dut, ni ez banintzen kapaz egiteko, ez nintzen kapaz beste bati esateko, hori nere etika minimoa da», adierazi du.

Etxeko balkoitik bere mugaz gaindiko joan-etorrien lekuko isila izan den Bidasoa inguru ederrari begiratu dio lasai martxo goiz eguzkitsua honetan. «Badakizu? Jainkoak esan zidan Euskal Herriatik aparte hainbeste urte pasata etortzean halako bista bat oparituko zidala». Eta barrez hasi da.

JOXE AZURMENDI idazlea

IRITZIA



Korrika Martin Ugalderekin

Hainbeste jende mereziko luke eta pena da denen izenak ez da goela esaterik ere. Udaberria bezala da: neguondoan saratsa argiz mugitzen hasten da, loratzen otea, hostoa, berdetzen mendiko belar higatua, Euskal Herri osoa. Lehentxeago, lurralde gutzia mugimenduan jarri da hanka-zarata batean, milaka lagun korrika, udaberria esnatu eta zabaldu nahia.

Euskalduna mendietan korrika dabilen piztia bezala deskribatu izan digute. Gero sarri profetizatu izan dute, animalia jenero bitxi hori laster galtzeko zegoela, euskalduna. Baina, korrika segitzen du bizi-bizi mendietan piztiak.

Eta hainbeste jende da korrika horretan meritoz betetzen dena, denak ez bait dago aipatu eta ohoratzerik. Denon izenean Martin Ugalde ohoratuko dugu: animalia noblea, izpiritu ederra.

Korrika honetan —Martin Ugalde aspaldion aritu zaigu korrika luzea korritzen beti aurretik— neska zein mutil, zahar hala gazte, denok gara irabazle txapelidun. Lasterketa hau ez bait da inoren kontra, bai denon alde.

Salbu: geure erretxin ipurtestu konplexutik batzuk (beti egoten dira), edo euskalduna sportatzen ez dutenak, hainbat gutxiago korrika badabil.

Besie denok, etxeoandreak, alfabetakumeak, eskolaitonak, idazkurleak, ahal dugun moduan euskaraz korritzen dugunok eguneroko guie korri-

katxo nahasia, denok aurkitzen dugu geure burua Martin Ugalde ondraz dezkatuta. Tuteran hala Baionan, eta Beasainen bezala Agurainen eta Santurtzin. Denok sentitzen gara ohortuak eta guztiok poztzen gara guztiok festa honetan Ugalderekin.

Ugalde baitan euskalgintzaren ezaugarriak positiboak eta maitagarriak ospatzen ditugu inkarnatuta: irekitasuna, gozotasuna, baina iraupena. Estetika eta borroka. Dohain altuak eta entregu apala. Mundu-zabaltasuna kulturaren eta atxekitasuna bihotzaren irme lurrari. Euskaltzetasuna politikaren gainetik. Muga txikien gaindikotasuna. Abertzaletasun zaharretaren eta berriaren segida. Ausardia eta sakrifizioa: batere gustatu ezin zitzaizkion arazoetan ere buru-belarri sartzeko, euskarak hala behar zuela ikusi duenean. EGUNKARIAN esate baterako. Jende arras diferentetarekin kolaboratzeko gaitasuna. Sentsibilitate ezberdinen armonia. Kontraesanak eta teinik ongi ezagutu baina ezikusteko handitasuna, hots, bere-bere izpirituaren dotoretzia personal hori, arimako eleganzia.

Asko eta asko dira, euskara bizi dadin lanean, meritoz betetzen ari direnak, ez bait dago haien guztien izenak esaterik ere. Martin Ugalderekin irudi eta eredu, Korrikak, hots, guk denok, euskararen korrikalari eguneroko guztiok, euskalgintza osoari eta Martini, omenaldi bat ematen diogu eta lezio bat hartu. Eskerronez.

Asko eta asko dira, euskara bizi dadin lanean, meritoz betetzen ari direnak.

EUSKARAREN ALDE AUPA KORRIKA !!
NAFAR GOBERNUAREN EUSKALTEGIKO LANGILEGOA
 Miguel Astrain, 10 Tel.: 23.15.54 IRUÑEA

UHARTEKO EUSKARA BATZORDEA
11. KILOMETROAN
EUSKARAREN ALDE KORRIKA !!

PEÑUELO
LIBURUDENDA
 Bulego Materiala
 Fotokopiak
 Faxa
 Arriزار, 2
 Tel.: 35 22 11
 ALTZA - DONOSTIA

MARKOS
 OKINDEGI TA GOZOTEGI ETXEKOAK
 Ubarburu P. 4-5 Pabilioiak
 27 Industrialdea Tel.: 45.09.66
 MARTUTENE
 Urdaburu Kalea, 2 B. Ijurko
 Tel.: 52 95 98 LEZO
 Ategorrieta Etorb., 33
 Tel.: 27 48 48 DONOSTIA

LIBURU BERRIAK
 * Memorias del calabozo
 * Por la libertad vasca
 TXALAPARTA ARGITALETXXA
 78 POSTA KUTXA
 31300 TAFALLA - NAFARROA
 Tel.: (948) 70.32.77
 Faxa: (948) 75.50.12

EUSKALERRIA IRRATIA

Elkarren berri izan dezagun
 Irintzi Dorrea, 13 - Ezk. Iratxe Monastegia, 45 Tel.: (948) 17.01.51 IRUÑEA